

Hauteskunde Sindikalak: EGINDAKOAK Ikertzaile-irakasleen kolektiboan

Lan-baldintzen inguruan:

- **Ikertzaileak**
 - [EPIPF](#) onartu zenean, indarrean zeuden kontratuetan soldatak igotzeko [epaia irabazi genuen](#).
 - [Doktoretza-aurreko ikertzaileen soldatak](#) aurten EPIPFak zehaztutakoaren % 3,6 gainera egotea lortu da, 2024an % 7,3a handiago izango dira.
 - [Doktoretza-osteko ikertzaileen soldatak irakasleen pareko eskalan ezarri dira](#).
 - Doktorego aurreko ikertzaileek [PFEZa ez ordaintzea lortu dugu](#), arau foralak betearaziz; horrela (atxikipenik gabe) soldatak % 9,5 altuagoak dira.
- **Lanaldi partziala:** kolektiboa antolatzeko lana eta [diagnosia](#) (inkesta zabal batez) eta 41/2008 deketua aldatzeko aldarrikapena.
- **Egonkortzea:** lanpostuak egonkortzeko borroka, [zerrenden kudeaketa justu eta argia egiteko jarraipena](#).
- **Seiurtekoak:** [atxiki izandako bitartekoentzat \(interinoak\) seiurtekoak lortzea](#), eta gainerako aldi baterakoek eskatu ahal izateko [borroka](#). Irtenbidea lortzea gertuago dago egindako lanari esker.
- **Irakaskuntza esleitzeko araudi berria:** irizpide argiagoak eta justuagoak, gehiegikeriak saihesteko eta IRLon artean egoera prekarioenean daudenak babesteko.
- **Erretiroa:** errektoretzaren jarreraren ondorioz, [atzerapauso nabaria jasan behar izan dugu](#). Negoziazio saioen emaitza ikusita, mobilizazio kanpaina burutu eta erretiro plan berria epaitegietara eraman dugu.
- **Ordezkapen poltsak:** ebaluatzeko irizpide zehatzagoak eta ezagutza arloen arteko afinitate taulak garatzeko konpromisoa.
- **Klausula Feministak:** [Batzorde Intersektorialaren akordioa eta Kontziliazio-Gida, legeak jasotakoaz gain](#), besteak beste, guraso bakarreko familientzako onurak gehitzen dituen (beste gurasoari dagozkion asteak metatzeko aukera).



Unibertsitate ereduaren inguruan:

- **Zerbitzu publikoen defentsa:** pribatizazio saiakeren salaketa, bai EHUn bertan ([e-postak multinazionalen esku uzteko salaketa](#)) zein [EUNEIZen sorreraren aurrean](#), baliabide publikoak lehiakide pribatu elitistentzat ez bideratzeko.
- **Euskara:** EHUn eskaintza eta zerbitzu guztiak euskaraz emateko etengabeko borroka eta [Administrazioaren fiskalizazio lana](#).
- **LOSUn jarraipena eta salaketa,** EHUKo langileongan estatu espainoleko azken lege inposatuak duen eragina aztertzeke.
- **Gobernantza demokratizatzea:** EHUKo kolektiboentzat garrantzitsuak diren erabakietan eragiteko parte hartu dugu hainbat gunetan. EHUKo kolektiboen ordezkaritza demokratizatzeko lana: Klaustroan ordezkaritza-portzentaje batzuk aldatu dira.

HELBURUAK (2023-2027)**HAUTAGAITZAK****Irakasle-ikertzaile prekario eta diskriminatuek bat egiten dute LABen alde (Bideoak)****LABek jarraituko du finantzaketa, soldata eta erretiro-plan duinak eskatzen (Bideoak)****Balantze, programa eta hautagaitzak ([pdf](#))****Orri nagusia**